


Enherkom

Hernaniko energia komunitatea

Egilea: Goiener

Kokapena



Hernani, Gipuzkoa

Biztanle kopurua: 20.516

Sustatzailea: Hernaniko

Udala eta Goiener

Energia mota: eguzki-energia

Harremanetarako:

info@enherkom.eus

TESTUINGURUA

Nondik abiatu energia komunitate bat?

Hasierak erabakigarriak dira etorkizuneko arrakastarako. Puntu honetan, **EBK baten irismena eta sortzeko oinarrizko baldintzak aztertuko ditugu**, betiere komunitatea erdigunean jarrita.

Honelako prozesu bat abiatzeko nahia bide desberdinetatik (udala, herriko kolektibo bat...) etor daitekeela kontuan izanda ere, hasiera emateko fase honetan, interesa agertu duen eragileak eta horrela erabaki bada, bidelaguntza egingo duen eragileekin batera, Sustengu Taldea osatuko du. Talde honen egitekoa izango da prozesua aktibatzeke baldintzak betetzen diren txeketa eta segimendua egitea. Horrenbestez, Sustengu Taldearen biziraupena, tokian tokiko prozesuaren araberakoa izango da; Komunikazio lantaldeak, apurka apurka Sustengu Taldearen ardurak hartuko ditu. Testuinguru honetan, EBK bat zer den argituta eta hori nahi dugula berretsita, EBK sortzeko **baldintzak** ezarri behar ditugu.

EBK sendo eta bideragarri bat lortzeko, aurretik 3 baldintza bete beharko ditugu:

- **Eragile giltzarriak identifikatu eta erakartzea:**
 - **Herritarrak:** adin, genero, jatorri, esperientzia, jakintza... desberdinetakoak eta energia berriztagarrien aldeko apustua egin nahi dutenak, energia modu lokalean sortu eta elkartasun-mekanismoak lehenesten dituztenak.

- **Herri-eragileak, elkarteak, bizilagun elkarteak...**
- **Udaletxea edo tokian tokiko administrazio publikoa.** Erakunde publikoek sorrera prozesuan duten garrantzia azpimarratu beharra dago; diruz prozesua laguntzeaz gain, udaletako teknikarien “konplizitatea”, diruzainena eta idazkariena beziki, beharrezkoa da, hala nola lagapen kontratuak egiteko, diru ekarpenak modu egokian egiteko eta abar.
- **Tokian tokiko enpresak:** izan energia berriztagarrien arlokoak edo ez, baina energia berriztagarrien aldeko apustua egin eta komunitatearen indarrean sinesten dutenak.
- **Prestutasuna:** bileretara etortzeko eta apurka-apurka, egin beharreko lanen ardurak hartzeko prestutasuna duten pertsonak beharko dira eta komunitatea erdigunean jartzeko desioa ere izan behar dute.
- Komunitatea **gure kabuz** aterako dugu aurrera? edo **bidelaguntza** beharko dugu? Horretarako hasieratik hurrengo ezaugarriak aurreikusi behar ditugu:
 - Baliabide tekniko eta ekonomikoak lortzeko aukerak aztertzea.
 - Tokian tokiko behar energetikoak ezagutzea.
 - Tokian tokiko baliabide energetikoak ezagutzea.



2020ko ekainean, konfinamendutik irteten hasi ginenean, Hernaniko Udalak, GOIENEReko kolaboratzaile-sarearen bidez, energia-komunitate berriztagarriekin (EBK) lotutako GOIENERen lanaren berri izan zuen. Ezagutza horretatik 3 informazio-topaketa egin ziren, Udalaren eta Goienarren ordezkarien artean. Bilera horietatik, Udalak EBK bat sortzeko prozesu bat sustatzeko konpromisoa hartu zuen, eta hasieratik onartu zuen erakunde hori autonomoa, plurala, irekia eta ez-diskriminatzailea izango zela.

HERNANIKO UDALAREN PAPER A ETA PARTE HARTZEA

Talde sustatzailea sortu

Tokian tokiko errealitatearen arabera talde honen konfigurazioa desberdina izango da, baina badira, normalean, kontuan izan behar-ko ditugun hainbat alderdi. Hona hemen aipagarrienak:

- **Osaera:** taldea 8-20 pertsonak osatu beharko luke, herri-tamaina eta dauden aukeren arabera. Horien artean, bilatu beharko da taldea askotarikoa, desberdinen arteko elkargunea izatea. Horrenbestez, arreta berezia jarri beharko da tamainan, eraginkortasun eta aniztasunaren arteko uztarketan eta horren kudeaketan.
- **Taldearen funtzionamendua adostu:** bileren maiztasuna, tokia, formatua (telematikoki/presentzialki), metodologia... Ez dago soberan guzti hori jasoko duen dekalogo bat sortzea, betiere, malgua eta irekia, ordea.
- **Ardurak definitu:** komenigarria da eginkizunak zerrendatzea eta horiek aurrera eramateaz nor arduratuko den finkatzea. Hasieran pisu handiena Sustengu Taldeko kideek hartu beharko dute, baina elkarrekin sortzeko prozesuan aurrera egin ahala, Talde Sustatzaileko kideen artean banatu beharko dira lanak, betiere eta posible izanez gero, kide bakoitzaren beharrak eta interesak kontuan hartuta. Hortaz, eginkizun, lan eta informazioaren traspasari arretaz heldu beharko diogu eta behar duen denbora eskaini.

Hernanin, identifikazio lan bat eta mapeoa abiatu zen, eragile giltzarri motak identifikatzeko. Honen ondorioa, 2020ko azaroan, auzo desberdinetako herritar, elkarte, enpresa, dendari elkarte eta abarrekin, deialdi bat antolatzea izan zen.

Deialdi honetan proiektuaren nondik-norakoak eta Energia Komunitatea (EBK aurrerantzean) zer helburuekin planteatzen den azaldu ziren. Lidergoa komunitatean egongo dela azpimarratu zen, eta hasiera batean proiektu mota batzuk aurkeztu ziren. Deialdi honen ondoren adostu zen prozesuari hasiera ematea. Talde Sustatzailea eratuta zegoen eta beti irekita.

Eraikin publikoen gaitasun energetikoa eta kontsumoa kalkulatu

Udalek jasangarritasun legea (EAE mailan) bete behar dutenez eta horretarako eraginkortasuna lantzeaz gain, autokontsumo eta sor-kuntza berriztagarria landu behar dutenez, eraikin publikoen teilatuen erabilera zein izango den jakitea oso garrantzitsua da; teilatu batzuk, jasangarritasun legea betetzeko beharko ditu udalak eta beste batzuk libreago egongo dira edo guztiz libre. Jabetza publikoko teilatu batzuk, patrimonioak babestuta ere egon daitezke; horien teilatuetan momentuz ezin da plaka FVrik jarri eta hori ere kontutan izan beharko da.

Azken finean, udalak erabiliko ez dituen gainazaletan panel FVak jarrita, zenbat argindar sortu ahal izango den eta inguruko bizilagunen eta enpresen artean zenbat erabili ahal izango duten aztertu beharko da.

Hernanin, hasieratik, udaletxea prest agertu da eraikin publiko batzuk erabiltzeko FV proiektuak garatzeko eta EBKren eskutan uzteko. Horretarako GOIENERekin batera aztertu ziren hainbat udal eraikinen egoera eta aukerak energia sortzeko mailan.

Aurre-bideragarritasun azterketa hauei esker eraikin batzuk baztertu ziren eta beste batzuk lehenetsi, hurrengo irudian azaltzen den moduan.

Lanketa honi esker, Talde Sustatzailearekin aztertu ziren aukera desberdinak instalakuntza Fotovoltaikoen inguruan.

Baina ez hori bakarrik, prozesuaren baitan Talde Sustatzaileak beste zerbitzu mota batzuk bultzatu beharko zirela aldarrikatu zuen. Horren ondorioa **pobrezia energetikoari aurre egiteko eta eraginkortasun energetikoaren** inguruan zerbitzuak diseinatzen ari direla izan da.

Komunitateak barneratu du proiektuak Komunitatetik egiten direla eta ez alderantziz, proiektuek Komunitatea baldintzatzen dutela.

Proiektu pilotu baten kalkulua egin

Kokapen desberdinak identifikatu ondoren bideragarritasun zehatz bat aztertu zen. Hurrengo dokumentua simulazio baten emaitza da.



Hemen adierazten da proiektu honen inguruan 86 erabiltzaile desberdin sartu daitezkeela eta proiektua 6-7 urtetan amortizatzen dela diru-laguntzarik gabe.

HERNANIARREN PARTE HARTZEA

Talde sustatzailea

Aurreko atalean aipatu ditugu prozesuaren urrats batzuk. Udalak EBK prozesua martxan jartzeko erabakia hartu zuenean, Talde Sustatzaileira etortzeko gonbidapen zuzena egin zien herritar eta elkarre batzuei, etorriko zirenaren konfiantzan eta aurrera begira lanerako prestasuna agertuko zutenaren esperantzan.

Hasiera baten ia denek erantzun zuten eta batzuk Talde Sustatzailea utzi zuten arren, beste pertsona berri batzuk sartu ziren, behar adina indar eta motibazio mantenduz denboran zehar. Hau ohikoa da prozesu epeak ertain-luze direnean eta prozesuaren irekitasun ondorio positibo bat bezala hartu behar da.



Saio bateko bilera
Hernaniko udalbatza
aretoan

Talde sustatzailea 2021ko urtarriletik 2022ko martxora arte lanean egon da, Komunitatea eratu den arte. Horretarako saio mota asko izan dira; informazioa jasotzeko, erabakiak hartzeko.

Sentsibilizazioa: Parte hartze prozesua noiz, nola eta zergatik?

Udalak eta Talde Sustatzailea osatzen duten herritarrek, Hernaniko herritarrentzat ateak zabalik dituztela eta taldera batzeko aukerak badaudela erakusteko, aurkezpen ekitaldiak antolatu dira 2021eko udaberritik aurrera: hitzaldiak, tailerrak, topaketak... Denbora aurrera joan den heinean, udalaren komunikazio kanalak erabiliaz¹, antolatutako ekitaldien bidez eta ahoz-ahokoa komunikazioarekin, herritarrek Hernaniko EBKren berri izan dute. Urrutienera daude-nengana ere heltzea gogoan izan da eta horretarako, zaugarriekin lanean dabilzan erakundeen bitartez ere saiatu dira.

1. <https://burujabe.hernani.eus/es/energia>



Jende-aurreko aurkezpen publikoa 2021ko udaberrian

HERNANIKO KOMUNITATEAREN OSAERA ETA AHALDUNTZEA

Hasieratik herritarrak, elkarteak, enpresak, auzo udala eta udala izan dira Talde Sustatzailearen partaide. Lehen bileretan ezjakintasuna nabaria zen arren, konfiantza giroa sortzea gakoa izan zen eta ahalduntzen joan ziren heinean, protagonismoa herritarrei emateko desioan azpimarra jarrita, apurka-apurka, lanen ardura Komunitatearen kide izango direnek hartu dute.

HERNANIKO KOMUNITATEAREN INDARTZE ETENGABEA

Talde Sustatzailean eta Lantaldeetan, komunitatearen kide izango direnek protagonismoa hartzea garrantzitsua izanda, hori gertatzeko baldintzak sortzea da prozesuaren gakoetako bat. Ahalduntzeaz gain, ardurak beraiei eman eta herritarrek beraiek hartzearen bide hori, tentuz egin behar da. Pertsonak ez “erretzea” baina aldi berean, protagonismoa beraiei ematea eta beraiek gogoz erantzutea lortu behar da, hori baita Komunitatea egitea.

Prozesuak oinarri hauek ditu: **irekiera, ahalduntzea, erabakitzeo ahalmen eraginkorra**. Irekiera boladaka joan da, pertsonetatik, taldeetatik, elkarteetatik eta tokiko enpresetatik abiatuta, aurkezpen publikoetara iritsi arte, jendea prozesura erakartzeko. Kooperatiba sortu aurretik, talde sustatzaileak irekita jarraitzen du. **Ahalduntzea** talde sustatzailearekin informazioa, prestakuntza eta iritzi-kontras-

tearen bidez zehaztu da. Azkenik, **kontrol eraginkorraren** adierazgarri da gobernantza, proiektuak eta EBKrekin zerikusia duen guztia talde sustatzaileko partaideen artean erabaki dela.

3 lantalde sortu dituzte:

- **Administrazio-Juridikoa.** Izapide guztiak martxan jartzeko eta kooperatibaren kudeaketa koordinatzeko, nahiz eta hasieran kanpoko laguntza bilatu behar izan.
- **Proiektuak.** Identifikatu diren lehen proiektuak, eman nahi diren zerbitzuak eta etorkizuneko proiektuak abian jartzeko.
- **Komunikazioa-komunitatea.** Hernaniko txoko guztietara iritsi eta bazkideak batzeko, zer egiten dugun, nola egiten dugun, prestakuntza, informazioa eta abar koordinatzeko.

Bidaia honetan ez gaude bakarrik. Udalak sostengua ematen du, GOIENER **energia-komunitatea** etengabe ahalduntzeko prozesuan laguntzen eta aholkuak ematen ari da. Hasiera baten, lantalde bakoitzean Sustengu Taldeko norbait dago, taldea aktibatzeko, martxan jartzeko eta aholkularitza emateko. Lantaldea garatzen doan heinean, Sustengu Taldeko pertsonaren papera, ahultzen doa eta Hernaniko Kideek protagonismoa hartzen dute, taldearen kudeatzaile eta zaindari izan arte.

ARLO JURIDIKOA: HERNANIKO AUKERA

Kooperatibaren aukera izan da uneoro eragile guztiek buruan izan dutena. Herrian bertan kooperatibismoa nahiko ezaguna da eta Europako Zuzentzarauk eskatzen dutena betetzeko entitate eraginkorrena kooperatiba dela guztiek ikusi dute. Elkartea izatearen aukera ez da eztabaidatu ere egin. Kooperatibaren abantailak nabariak dira guztientzat eta Elkartearen desabantailak eta batez ere abantaila txikiak, etorkizuneko oztopo bilakatuko zirela ere argi dago.

Kooperatibak ematen dituen aukera guztien artean, integrala eta mistoaren izaera aukeratu da:

- **Integrala:** mota guztietako zerbitzuak eman ahal izateko, kontsumo kooperatiba eta zerbitzu enpresarialak batuaz.
- **Mistoa:** bazkide kooperatibistak izateaz gain, boto-eskubidea duten sozietate-zatien titularrei ere tokia egiteko; bazkide inbertsoreak ere izatea posible egiteko. Bazkide hauen boterea

estatutuen bidez mugatzen da baina inbertsoreen arteko botoen banaketa, jarritako kapitalaren arabera banatzen da.

Bazkide motari dagokionez, adinez nagusi den edozein pertsona edo entitatek izena eman dezake (enpresa, jabeen komunitatea, elkar-teak, etab.). EBK irabazi asmorik gabeko kontsumo eta zerbitzuen kooperatiba bat da. Izan daitezke:

- **Bazkide kontsumitzaileak** (zerbitzuren bat erabili nahi du). **10€** jartzen dituzte.
- **Bazkide laguntzaileak**. Proiektua babesten du, nahiz eta ezin dituzten zerbitzuak erabili arazo legal eta teknikoengatik. **1.000€** jartzen dituzte juridikoak badira.
- **Zerbitzuak ematen dituzten bazkideak**. Enpresak, kooperatibaren barruan bazkideei zerbitzuak eskaini nahi dizkieten partikularrak. 100 € jarri dituzte.
- **Bazkide langileak**. EBKn lan egingo duten pertsonak, gutxieneko bazkide, proiektu eta zerbitzu kopurua dutenean. **10€** jartzen dituzte.
- **Bazkide 'inbertitzaileak'**. Edozein kidek eman diezazkioke funtsak kapitalari (borondatezko ekarpena), baina batzuek hori bakarrik egin dezakete. **100€** jarri dituzte.

Gai hauen inguruan informazio gehigarri moduan hemen aurkitu ditzakegu bi baliabideak:

- Estatutuen Hezurdura eta Bideragarritasun Ekonomikoa aztertzeko kontutan izan behar diren mugarriak²
- Aurkezpen orokor bat izaera juridikoaren inguruan, kooperatibaren ikuspegitik³.

Prozesu osoa laburbilduta hemen irudikatu daiteke. Itxuraz oso luzea ematen du, baina kontutan izan behar da 2020ko epea barneko lana izan zela (aurrekaririk ez zegoelako) eta lehenengo EBK eratze-ko prozesua izan zela, bere gora-beherekin, joan-etorriak.